

***“IES Uribarri BHIko
tutoretza-planaren oinarriak
eta helburuak”***

AURKIBIDEA:

1. IES URIBARRI BHIko TUTORETZAREN ESPARRU OROKORRA
2. TUTORETZAREN HELBURU OROKORRAK
 - 2.1. Tutoretzaren helburuak ikasleekin, banaka zein taldean aintzakotzat hartuta.
 - 2.2. Tutoretzaren helburuak irakasle-taldearekin.
 - 2.3. Tutoretzaren helburuak familiekin
3. ESKU-HARTZEKO ILDOAK, TALDEAREKIKO ORIENTABIDE- ETA TUTORETZA-JARDUEREN PROGRAMAZIOAN
4. ORIENTABIDE- ETA TUTORETZA-LANAREN ARDURADUNAK ETA FUNTZIOAK
 - 1.1. Tutorearen funtzioak
 - 1.2. Irakasleen funtzioak eta ardurak
 - 1.3. Orientatzailearen funtzioak eta ardurak
 - 1.4. Ikastetxeko zuzendaritzaren funtzioak eta ardurak
5. KOORDINAZIOA ETA JARRAIPENA
6. ERANSKINAK:
 1. eranskina: DBHko talde-tutoretzaren jardueren plangintza
 2. eranskina: Batxilergoko talde-tutoretzaren jardueren plangintza
 3. eranskina: Orientabide akademiko eta profesionalaren plangintza

1. IES URIBARRI BHIko TUTORETZAREN ESPARRU OROKORRA

IES URIBARRI BHIIn, tutoretzaren lana irakasle-funtzioaren ataltzat hartzen dugu, ikasle guztien ikaskuntza, orientabidea eta garapena, osorik hartuta, erraztu nahi dituen funtzioaren ataltzat, hain zuzen; horretarako, tutoretzalanak eragina izan beharko du heziketa-prozesuan modu ezberdinetan inplikaturik dauden partaideengan (irakasle, ikasle eta familiengan).

Tutoretza-funtzio horren zereginak erabat integraturik egon behar du irakasle-jardueran, heziketa-talde berean aritzen diren irakasleen arteko ardura eta kooperaziorako irizpideak finkatuta, ikastetxearen curriculum-proiektuaren esparruan. Tutoreak, zeregin horretan, koordinazio-lanaren funtzioa beteko du.

Ikasleak erreferentzia nagusia dira tutoretza-lanean, eta, horregatik, alde batetik, beraiekin arituko gara, bai banaka, bai taldean esku-hartzeko, eta, beste alde batetik, familia eta irakasle-taldearekin, estrategiak eta ahaleginak batu eta koordinatu ahal izateko.

2. TUTORETZAREN HELBURU OROKORRAK

Beraz, aurrekoa kontuan hartuta, IES URIBARRI BHIIn hurrengo helburuak planteatzen ditugu tutoretza-jardueran:

- 1) Talde bakoitzean diharduten irakasleen heziketa-planteamenduei koherentzia ematea.
- 2) Harremanetan, bitartekaria izatea, gerta litezkeen arazo edo gatazken aurrean elkarrizketa eta negoziazioa errazteko, bai talde barruan, bai, batetik, taldearen eta, bestetik, irakasle, ikastetxe eta kanpoko eragileen artean.
- 3) Ikasleak ezagutzea, heziketa-proposamenak beren beharretara egokitzeko, eta irakatsi eta ikasteko prozesuan laguntza-neurri eraginkorrak eskaintzeko.
- 4) Heldutasun pertsonala, norberaren identitatea eta balio-sistema garatzeko prozesuan laguntzea, baita etorkizun akademiko eta profesionalerako erabakiak hartzean ere.
- 5) Ebaluazioa koordinatzea, eta ikasleei eta familiei horren berri ematea.
- 6) Familiak beren seme-alaben heziketa-prozesura eta ikastetxearen bizitzara erakartzea.

2.1. Tutoretzaren helburuak ikasleekin, banaka zein taldean aintzakotzat hartuta.

1. Ikasle bakoitzaren beharrak ezagutzea eta aintzakotzat hartzea, beharrezkoak diren alderdietan laguntza eta orientazioa

emateko (lehentasunak, autonomia, autoestimua, itxaropenak, nortasunaren ezaugarriak...).

2. Ikaskuntza-prozesuaren eta bilakaeraren jarraipena egitea (curriculum-gaitasunak, zailtasunak, ahuleziak, lan eta ikaskuntzaren erritmoa, aurrerapenak, harremanak, heldutasuna...).
3. Ikasleen lehentasunak, beharrak eta gaitasunak direla eta, erabaki autonomo eta arduratsuak hartu ahal izateko laguntza eskaintzea (aukerakoen eremuan, ibilbide akademikoan, unibertsitatera, lanbide-heziketara edo lan-mundura sartzeko...).
4. Norbere burua ezagutzen, eta estimu pertsonala, era orekatu eta positiboan, lortzen laguntzea (alderdiak: soziala, fisikoa, akademikoa, emoziozkoa, aukerak, mugak, etorkizuna...).
5. Etorkizun akademikoa edo profesionala dela eta, erabakiak ahalbidetzea (norbere burua eta giza ingurunea ezagutzea, erabakiak hartzeko beharrezkoak diren jarrerak eta prozedurak aztertzea...).
6. Ikasteko estrategiak eta ohiturak bultzatzea, ikasi eta ikasten ikasi ahal izateko (kanpoko baldintzak kontrolatzea, informazioa aberasteko eta ondo ulertzeko estrategiak ikastea, ikasten dena idatzi eta sendotzea, norberaren lanak burutzea...).
7. Etapan zehar integrazioa eta sarbidea erraztea (etapa eta zikloak ezagutzea, irakasgaien alderdi adierazgarrienak, taldeko lagunak ezagutzea, taldearen bilakaera benetako talde bihurtu arte...).
8. Ikastetxearen funtzionamendua ezagutzea, horri buruzko hausnarketa egitea, eta bertan parte hartzea, horretarako dauden baliabideak modu egoki eta positiboan erabilia (organo arautzaileak, bizikidetza eta funtzionamendurako araudia, eskubideak, betebeharrak, ebaluaziorako arauak, partaidetza...).
9. Ikasleen artean hausnarketa bultzatzea, baita ikasi eta irakasteko prozesu bera aintzakotzat hartzea ere.
10. Ikasleen prestakuntzari dagokionez, orientazioa ematea konpromiso pertsonalak eta taldearenak gero eta sendoagoak izan daitezen.

Zeregin eta jarduera nagusiak taldearekin:

- Ikasleen harrera egin, planak ezartzen duenaren arabera.
- Taldearen behar eta gorabeheretan arreta eta jarraipena egin. Ikasleen etortzea erregistratu eta kontrolatu. Horren berri eman familiei, irakasleei eta ikasleei.
- Ordezkariek aukeratu.
- Ebaluazio arrunten eta ezohikoen lanak egin.
- Taldearen dokumentazioa aztertu eta eguneratu. Zerrendak, izenak eta abizenak, helbideak, telefonoak, gaintitu gabeko irakasgaiak, eta abar. Hori guztia egin ikasleen harrera-egunerako.
- Atsedendia eta jantokirako baimenak eskatu, baita DBHko irteeretarako ere.
- Bitartekari-funtzioa egin talde barruan sor litezkeen gatazketan, edo taldearen eta irakasleen artean.
- Orientabide- eta tutoretza-jarduerak programatu eta garatu taldearekiko tutoretza-saioetarako.
- Ikasleei interesatu ahal zaizkien alderdien berri eman:
 - Ikasketen egitura
 - Beharrezkoak diren jarrera nagusiak: ikasketa-metodoak, gelarako lan-metodoak, autonomia pertsonala, eta abar
 - Mailaz igarotzeko arauak, errepikapenak
 - Ebaluazio-irizpideak
 - Ebaluazio arrunten eta ezohikoen prozesuak
 - Gaintitu gabeko irakasgaiak errekuiperatzeko deialdiak eta prozedurak
 - Derrigorrezko segurtasun-arauak, tailerretan eta bestelako instalazioetan
 - Institutuaren antolakuntza. Kudeaketa- eta partaidetza-organoak, ikastetxearen organigrama.
 - Bekak eta diru-laguntzak
 - Gatazkak konpontzeko baliabideak eta prozedurak
 - Etortze- eta puntualtasun-arauak
 - Barneko arauak. Tabakoari buruzko legea, kartelak, bilerak, grebak...
 - Erreklamazioak eta kexak
 -

Ikasle bakoitzarekin egiteko jarduera eta zeregin nagusiak:

- Banakako elkarrizketak egin, ikasteko prozesuaren eta garapen pertsonalaren jarraipena gauzatzeko.
- Orientabide akademikoa eta profesionala.

2.2. Tutoretzaren helburuak irakasle-taldearekin

1. Heziketa-erantzun egokiak ahalbidetzea eta koordinatzea, ikaskuntzaren zailtasunak gainditu ahal izateko (errefortzuak, laguntzak...).
2. Ikasleen informazio esanguratsua bateratzea, heziketa-proposamena programatu, garatu eta ebaluatu ahal izateko.
3. Ikasi eta irakasteko prozesua eta banakako emaitzak zein taldearenak aztertu eta aintzakotzat hartzea, baita hobetzeko baliabideak ezartzea ere.
4. Beharrezkotzat hartzen diren heziketa-errefortzurako neurriak diseinatzea eta koordinatzea.

Zeregin eta jarduera nagusiak

- Irakasle-taldearekin bilerak egin, aldez aurretik ezarritako plangintzaren arabera. Irakasleei informazioa eta dokumentazioa ematea (zerrendak, argazkiak, taldeari buruzko datu esanguratsuak, errepikatzaileak, CNEak, HPBak...).
- Tutoretzak koordinatzeko bileretara joan.
- Taldeari edo ikasle bati buruzko informazioa eskatu taldeko irakasleei.
- Ebaluazio-bilera prestatu, antolatu eta planifikatu.
- Ebaluazio-bileran adostutako konpromisoen jarraipena egin.
- Ebaluazioari buruzko txostenak eta buletinak egin, eta irakasleei entregatu.
- Ezohiko ebaluazioari dagozkion lanak egin.

2.3. Tutoretzaren helburuak familiekin

2. Irakasleen eta familien arteko harremanak bultzatzea, baita elkarri informazioa ematea ere, ikasi eta irakasteko prozesua errazteko (informazio esanguratsua bildu, taldearen bilerak ikasturtearen hasieran eta amaieran, banakako elkarrizketak...).
3. Koordinatzea, laguntzea eta lankidetzat eskatzea, seme-alaben hezkuntzan orientazioa bideratzeko.

Zeregin eta jarduera nagusiak:

- Familien harrera. Ikasturtearen hasierako bilera.

- Banakako elkarrizketak egin gurasoekin edo tutoreekin ikasturtearen hasieran, eta, betiere, jarrera-, errendimendu akademiko- eta etortze-arazoak izanez gero.
- Bestelakoak: eskutitzak, telefono bidezko elkarrizketak, txostenak, eta abar.

2. ESKU-HARTZEKO ILDOAK, TALDEAREKIKO ORIENTABIDE- ETA TUTORETZA-JARDUEREN PROGRAMAZIOAN

Tutoretzarako asteko ordua ezin da ulertu edukiz bete behar den ordu gisa. Haatik, taldeari buruzko hausnarketa eta azterketa egiteko saioa da: taldearen funtzionamendua, elkarbizitzan sor daitezkeen arazoak, arauen kudeaketa, ikastetxearen bizitzan parte hartzea, irakasgaietan dituzten zailtasunak, etorkizun akademiko eta profesionalari buruzko zalantzak...

Beraz, hiru ardatz nagusi hauek izango lituzke taldearekiko saio horren plangintzak:

“Elkarrekin bizitzen irakatsi”

- Ikasleen integrazioa bultzatu, taldean eta ikastetxearen bizitzan, baita partaidetzaren aldeko jarrerak sustatu ere.
- Elkarbizitzarako arauak, beste ikaskideak eta irakasleak errespetatu.
- Lankidetzaren, elkartasuna eta talde-lana bultzatu, arauak errespetatuz.
- Familiekiko harremanak mantendu, ikasleen errendimenduan eragin positiboa lor dadin.

“Pertsona izaten irakatsi”

- Ikasleak hezi partaidetza demokratikoan, ikastetxeko bizitzan.
- Gizarte-trebetasunen eta balio moralen lorpena ahalbidetu.
- Ikasleen iritzi kritikoa sustatu.
- Ikasleei irakatsi beren identitatea onartzen, eta beren buruari buruzko irudi positiboa izaten.
- Banakako ezberdintasunak errespetatu, eta aintzakotzat hartu.
- Intolerantzia-jarrerak baztertzen ikasi.
- Jarrera positiboak eta arduratsuak garatu.

“Pentsatzen irakatsi”

- Ikasi eta irakasteko prozesua egoki bideratzeko estrategiak eskuratu.
- Ikastaldiak antolatzen irakatsi.
- Errendimendu akademikoa hobetzeko ikasketa-teknikak erabili.
- Errakuntzei buruzko hausnarketak egin (autoebaluazioa), eta okerretatik ikasi, zuzendu ahal izateko.

“Erabakiak hartzen irakatsi”

- Hezkuntza-maila bakoitzean, ibilbide akademikoan dauden aukeren berri eman.
 - Ikasleei lagundu erabakietan, arduraz eta ezagutzaz har dezaten.
 - Ikasleei laguntzea, beren gaitasunak eta ezaugarri pertsonak ezagutu ditzaten, baita beren lehentasunak eta itxaropenak ere.
 - Ikasleei eman ibilbide akademiko eta profesionalei buruzko informazioa.
1. eranskinean, orientazio akademiko eta profesionalaren jarduerak planifikatzeko ildo nagusiak zehazten dira, “Erabakiak hartzen irakatsi” ardatza garatu ahal izateko.

Ildo nagusi horiek kontuan hartuta, zuzendaritzak, DBHko koordinatzaileak eta orientatzaileak **Tutoretza Plana** zehaztu, eta beran taldearekin erabiliko diren materialak eta jarduerak azalduko dituzte.

3. ORIENTABIDE- ETA TUTORETZA-LANAREN ARDURADUNAK ETA EGINKIZUNAK

4.1. Tutorearen eginkizunak

Ikasle-talde bakoitzean, irakasgaiaren arduraz gain, tutoreak berezko eginkizun hauek ditu, orientabide- eta tutoretza-planeari ezarritako helburuekiko koherentzia kontuan hartuta:

- 1) **Tutoretza Plana egitea**: bertan, ikasleen talde, irakasle eta familiekin garatuko diren esku hartzeko jarduerak definitu eta zehazten dira.
- 2) **Taldearen irakasle-taldea koordinatzea**, bai programazioa eta ebaluazioa prestatzeko, bai taldearen edo banakako egoerak aztertzeko, ikasi eta irakasteko prozesuan zehar.
- 3) **Ebaluazio-bilerak koordinatzea**, eta emaitzak entregatzea. Halaber, irakasgaien estatistikak bete beharko ditu, eta, oro har, Ikasketa Burutzak eskatuko dituen datuak, baita, tutoretzaren esparruan, ikasleen dokumentu akademikoak ere.
- 4) **Ikaslea orientatzea**, beharrezkoa denean, alderdi pertsonal, akademiko eta profesionalean, ikastetxeko Orientabide Planaren arabera, eta Orientabide Zerbitzuaren laguntzaz.
- 5) **Eskola-jarduerei buruzko informazioa ematea ikasleari eta bere familiari**, irakasleengana eta Ikastetxeko Aginte Organoetara jotzeko eskubidea ere badutela kontuan hartuta.
- 6) **Ikasketa Burutzari eta irakasleei taldearen datuen berri ematea**, funtzionamendurako esanguratsuak diren alderdiak eta beharrezkoak diren bestelako datuak jakinarazteko. Aldizkako bilerak egingo dituzte Tutoreen Batzordeek, informazioa zabaltzeko helburuz, besteak beste.
- 7) **Bitartekaria izatea taldean sor daitezkeen gatazketan.**

- 8) Ikasturtearen hasieran, **taldeko ikasleen espediente akademikoa edo aurreko ikasturteko aktak berrikustea**, gainditu gabeko irakasgaiak edo bestelako datu esanguratsuak erregistratzeko.
- 9) **Taldearen eta bere ikasleen jardueren jarraipen sistematikoa egitea**, ezarritako irizpideen arabera.
- 10) **Emaitza akademikoak aztertzea**, eta ebaluazio-bileretan hobekuntza-jarduerak garatzeko proposamenak egitea.
- 11) **Gelaren egoeraz arduratzea**, behaketa sistematikoa eginez, eta arduradunari beharrak azaltzeko txostenak emanez.

4.2. Irakasle-taldearen ardurak eta eginkizunak

- Ikaslea orientatzea irakasgaia ondoen ikasteko moduz.
- Ikasteko prozesuaren jarraipena egitea, ikasleen heziketa-beharrak kontuan hartuta.
- Komunikazio, afektu, errespetu eta entzute aktiboa lortzeko harremanak garatzea, ikasleen egoera pertsonalei buruzko arreta izanez.
- Etorkizunari begira, orientazioa ematea ikasleek hurrengo ikasketetarako edo mundu profesionalean sartzeko hartuko dituzten erabakietan.
- Laguntza ematea, ikaste guztiak taldean integratu, eta onartuak izan daitezen.
- Tutoretzarekin lankidetzak mantentzea, tutoretza-lanera esanguratsuak diren informazioa emanez.
- Taldeko beste irakasleekin koordinatzea, elkarren esku-hartzea garatu ahal izateko.
- Tutoretzarekin lankidetzak mantentzea, taldean esku hartzeko eta koordinazio-lanak garatu ahal izateko.

4.3. Orientatzailearen ardurak eta eginkizunak

- Etoparako Tutoretza Plana proposatzea, tutoreen ekarpenak bilduta.
- Tutoreek programatutako jarduerak egin ditzaten, baliabideak eskaintzea.
- Tutoretza Planaren ebaluazioan eta jarraipenean parte hartzea.
- Tutoreen bilerak koordinatzea eta moderatzea.
- Tutoreekin lan egitea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean orientazio-aholkuak emateko.

- Tutoreekin lan egitea, ikasleek ikaste-prozesuan izan ditzaketen arazoak, eta bertan eraginkorrak izan daitezkeen bestelako alderdiak antzeman, prebenitu eta aztertzeko.
- Ikasleen orientazioa eta garapen pertsonal eta profesionala lantzeko jarduerak koordinatzea bertan parte hartuko duten kanpoko eragileekin.

4.4. Ikastetxeko zuzendaritzaren eginkizunak eta betebeharrak

- Tutoretza Plana egite-prozesuaren berrikusketa, eta horri buruzko proposamenak egitea.
- Aurreikusitako garapen egokia aztertzea.
- Tutore, irakasle-talde eta ebaluazio-batzordeen bilerak antolatzeko egutegia egitea.

5. KOORDINAZIOA ETA JARRAIPENA

Zuzendaritzak eta orientatzaileak aldizkako bilerak izango dituzte, Tutoretza Planaren garapena koordinatzeko.

DBHko eta Batxilergoko tutoreek astean ordubete daukate beren ordutegian, ikastetxeko orientatzailearekin Tutoretza Planaren jarraipena eta koordinazioa mantentzeko.

Batxilergoko taldeetan, tutoreek ez daukate ordu berezirik ikasleekin tutoretza-saioak egiteko. Beraz, koordinazioa beharrezkoa denean egiten da.

TALDE-TUTORETZA: JARDUERAK GARATZEKO PROPOSAMENA (DBH 2012-13)

DENBORALIZAZIOA

TALDEA	1. HIRUHILEKOA	2. HIRUHILEKOA	3. HIRUHILEKOA
DBHko 1. maila	<ul style="list-style-type: none"> - Tutoretza: funtzionamendua - Ikaslearen fitxa: hasierako datuak - Ikastetxeko eta taldearen arauak, helburuak, antolaketa eta funtzionamendua - Taldea sortzen: aurkezpena - Gelako asanblada - Ikasketa eta lan-teknikak: eskola-agenda, tutoretzako karpeta, ikastaldiaren antolaketa, aholkuak. - Taldeko ordezkariak hautatu. - Familielikiko 1. bilera - 1. ebaluazioa - Taldearen elkarbizitza : gatazkak, errespeturik gabeko jarrerak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Taldearen elkarbizitza berrikusi. - IKTen erabilera: abantailak eta ardurak - Elkarren arteko ardurarako tailerra (rolak: rol bakoitzari dagozkion zereginak) - Autoestimua - 2. ebaluazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Orientazio akademiko eta profesionalerako programa: ikaslea kokatu etaparen esparruan. - Lan-teknikak lantzeko programa: berrikusketa - Amaierako ebaluazioa: Igarotzea/Errepikatzea - Autoebaluazioa eta taldearen eta ikasi eta irakasteko prozesuaren ebaluazioa - Tutoretza-saioen ebaluazioa
DBHko 2. maila	<ul style="list-style-type: none"> - Tutoretza: aurkezpena - Ikasleen fitxa: hasierako datuak - Ikastetxeko eta taldearen arauak, helburuak, antolaketa eta funtzionamendua - Gelako asanblada - Gelako elkarbizikidetzak: ikastetxeko arauetako buruzko azterketa - Ikasketa-teknika lantzeko programa: eskola-agenda, ikastaldiaren banaketa (aholkuak) - Taldearen ordezkariak hautatu - Familielikiko 1. bilera - 1. ebaluazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Taldearen elkarbizikidetzak aztertu: gatazkak, errespeturik gabeko jarrerak, gertakariei buruzko azterketak - IKTen erabilera: abantailak eta ardurak - Sexualitateari buruzko tailerra - 2. ebaluazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Orientazio akademiko eta profesionalerako programa: aukerakotasuna eta mailaz igarotzea. - Hezkuntza Osagarriko programak, LHIKak. - Taldearen autoebaluazioa eta ikasi eta irakasteko prozesuaren ebaluazioa - Amaierako ebaluazioa: Mailaz igarotzea / Errepikatzea - Tutoretza-saioen azterketa

<p>DBHko 3. maila</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Tutoretza: aurkezpena - Ikasleen datuen bilketa - Taldearen arauak, antolaketa eta funtzionamendua - Gelako elkarbizikidetzak : ikastetxeko arauak buruzko azterketa - Taldearen ordezkariak hautatu - Hasierako ebaluazioa - Ikasteko orientabideak - Etxeko ikastaldiaren plangintza - Familiarikoko 1. bilera - 1. ebaluazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Zinema-programa: Osasunerako programa - Taldearen elkarbizikidetzak: gatazkak eta konponbideak - Dilema moralak - Tailerra : emakumeen aurkako indarkeria - IKTen erabilera: abantailak eta arriskuak - 2. ebaluazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Zinema-programa: Osasunerako Heziketa - Orientabide akademiko eta profesionala: - hezkuntza-sistemari buruzko informazioa eta azterketa (4. mailako aukerakotasuna) - Irakaskuntza ez arautua (LHIKak) - Taldearen autoebaluazioa eta ikasi eta ikasteko prozesuaren ebaluazioa - Amaierako ebaluazioa - Tutoretza-saioen ebaluazioa
<p>DBHko 4. maila</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Tutoretza: aurkezpena - Ikasleen datuen hasierako bilketa - Ikastetxeko eta taldearen arauak, antolaketa eta funtzionamendua - Gelako elkarbizikidetzak - Taldearen ordezkariak hautatu - Hasierako ebaluazioa - Ikasteko orientabideak - Familiarikoko 1. bilera - Zinema-programa: balioen hezkuntza (<i>La clase</i>). - Hezkuntza afektibo-sexuala: HIESa, prebentzioa - 1. ebaluazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Tailerra: maskulinitatea eta feminismoa. - Orientazio akademiko eta profesionalerako programa: lehentasun, gaitasun eta aukeren autoezagutza. - Aukerak, DBHko 4. maila bukatzean: heziketa-ibilbideak Batxilergoan - DBHko bukatzean, aukerei buruzko informazioa ematea - 2. ebaluazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Heziketa-ibilbideak : Heziketa-zikloak - Irakaskuntza ez arautua: LHIKak, EPA... - Administrazio-izapideak - Taldearen autoebaluazioa eta ikasi eta irakasteko prozesuaren ebaluazioa - Amaierako ebaluazioa - Tutoretza-saioen ebaluazioa

TALDE-TUTORETZA: JARDUERAK GARATZEKO PROPOSAMEAN BATXILERGOA 2012-13			
DENBORALIZAZIOA			
TALDEA	1. HIRUHILEKOA	2. HIRUHILEKOA	3.HIRUHILEKOA
1. MAILA	<ul style="list-style-type: none"> - Tutoretzaren zentzua eta zereginak aztertzea - Taldearen ezagutza : datu akademikoen bilketa - Elkarbizikidetzeta eta puntualtasunari buruzko informazioa - Etapa berriari buruzko ezagutza: alderdi orokorrak (gure ikastetxeko antolaketa, aukerako irakasgaiak egiaztatzea) - 1. ebaluazioa 		
2. MAILA	<ul style="list-style-type: none"> - Tutoretzaren zentzua eta zereginak aztertzea. - Taldeari buruzko ezagutza : datu akademikoen bilketa - Elkarbizikidetzeta eta puntualtasuna: arauari buruzko informazioa - 1. ebaluazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - EHUko gida azaltzea. - EHUko "Ateak zabalik" jardunaldietan parte hartzea. - Informazio orokorra: aukerak, sabidea, PAU... - Izapideen egutegia, bekak... - Dokumentazioa: graduei buruzko informazioa - Aldez aurretiko inskripzioak: EHU aplikazioa - 2. ebaluazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Goi-mailako hezikata-zikloei buruzko informazioa - Matrikula-orriak (zer dira HK?, zein dira beren egitura eta prestakuntza-plana?, titulazioak, irteerak, ikastetxeetako eskaintzak, sartzeko baldintzak. - Bestelako ikasketei buruzko informazioa - Burututako jarduerari buruzko balorazioa: autoebaluazioa - Amaierako ebaluazio arrunta eta ezohikoa